

Bigarren hezkuntzatik unibertsitatera: beharrezko informazioa¹

Marta Barandiaran Galdos

marta.barandiaran@ehu.es
Ekonomia Aplikatua VSaila
Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
Euskal Herriko Unibertsitatea

Miren Barrenetxea Ayesta

Antonio Cardona Rodríguez
Ana María Martín Arroyuelos
Juan José Mijangos del Campo
Jon Olaskoaga Larrauri

Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Hezkuntza unibertsitarioa. Bigarren hezkuntza. Orientazio akademikoa. Hezkuntzaren kalitatea. Komunikazio politikak hezkuntzan.

1. TESTUINGURUA

XXI. mende honen hasieran gizarte aldakor batean bizi gara, bai bizitzeko bai ezaguera sortu eta transmititzeko eran. Hori dela eta, gizartea aldatetara gero eta arinago egokitu behar da eta horrek hezkuntza sistemen emaitza kualitatibo eta kuantitatiboei begirarazi die. Beraz, unibertsitateek oinarrizko papera betetzen dute garapena, ikerkuntza eta berrikuntza bultzatzeko zereginetan, eta horrek eragin zuzena dauka bere inguruko jarduera ekonomikoan.

¹ Lan hau «Las políticas informativas orientadas a estudiantes de enseñanzas preuniversitarias en las universidades españolas (POPE)» izeneko ikerketa proiektuaren inguruan egin da. POPE proiektuak Zientzia eta Berrikuntzarako Ministerioaren diru laguntza jaso du (Erreferentzia: EA 2008-0265, BOE 2008-8-12).

Testuinguru horretan, goi mailako hezkuntza-sistemako irakasleok eta ikertzaileok argi daukagu unibertsitateen kalitatea hobetu behar dela. Espainiako unibertsitateen azkenengo urteetako zifrak begiratzuz (CRUE, 2008), argi esan genezake arazoak ditugula gure ikastetxeetan, ikasleak mantentzeko eta ikasketak planifikatutako urte-kopuruan bukatzeko... ikasleek lortzen duten gaitasun maila aipatu gabe. Dena den, —eta ondasun publiko eta estrategikoa den neurrian—, goi mailako hezkuntzaren berrikuntza sormena bultzatzea hezkuntza-sistemaren kide guztien erresponzabilitatea izan behar du (UNESCO, 2009). Unibertsitateen hobekuntza prozesuaz arduratzea denon erantzukizuna da, nork bere harri-koskorra ekarriz.

Denok dakigunez, bigarren hezkuntzatik unibertsitateerako bidea ez da erraza gazteentzat; beraz, saiatu behar gara hezkuntza mailen arteko erlazioak ezagutzen. Horrela, unibertsitateko ikasleen errendimenduan eragina duten faktoreen artean, bigarren mailako hezkuntzarekin erlasionaturiko honako faktoreak agertzen dira, garrantzitsuenetarikoen artean: bigarren hezkuntzan lortutako errendimendua (Figuera, Dorio eta Forner, 2003; González, 2004; Michaelowa, 2007), aukeratutako ikasketarako ikasleen bokazioa (Barrenetxea eta Curiel, 2008; Cardona, Barrenetxea, Mijangos eta Olaskoaga, 2009; Figuera, Dorio eta Forner, 2003; Olaskoaga, 2009), koordinazio falta bigarren hezkuntzako sistemekin (Barrenetxea eta Curiel, 2008; Cardona, Barrenetxea, Mijangos eta Olaskoaga, 2009) eta ikasleek argi ez izatea nolakoa den unibertsitatea eta nolakoa bertako irakatsi eta ikasteko prozesua (Guerra eta Rueda, 2005).

Aurrekoa kontuan hartuta, unibertsitateek eta bigarren hezkuntzako ikastetxeek elkarri begiratzea oso garrantzitsua dela uste dugu, baita bakoitzak beste sistemaren beharrak ezagutzea ere, ikasleak hobeto orientatzeko ikasketak aukeratzekoan. Unibertsitateek jakin behar dute zein den bigarren hezkuntzako ikastetxeetan duten orientazio akademikorako egitura, bai eta zein nolako informazioa kontsideratzen duten garrantzitsua orientazio-agenteek, informazio hori landu eta ikastetxeetara bidaltzeko.

Titulazioari buruzko erabakiak hartzea prozesu konplexua da bigarren hezkuntzako gazteentzat eta beraietaz aparte, hezkuntza-sistemako hainbat agente eta faktore desberdinak parte hartzen dute, familiaren papera ahaztu gabe. Fase horretan, unibertsitate eta bigarren hezkuntzako sistemen artean elkarlan eraginkorra egotea behar dute ikasleek; beharrezkoa da ikasleari erabakiak hartzen laguntzea, bai eta erabakiak bere etorkizuna baldintza dezakeela jakinaraztea. Hezkuntzaren Lege Organikoan (LOE) definitutako hezkuntza-sistema berrian, zehazki batxilergoan, «erabakiak hartzean» oinarritutako orientazio akademiko profesionalerako eredia proposatzen da. Baina modu errealista eta planifikatuan erabakiak hartzen jakiteak gaitasun batzuetan aditua izatea eskatzen du. Gaitasun horiek erlasionatuta daude informazioa lortu, aukeratu eta analizatzearekin, helburuak planifikatu eta arazoak konpontzearekin, eta ez dira lortzen laster batean, hezkuntza prozesu guztiaren eta heldutasunaren emaitzak baitira.

Ikasleentzako orientazioa bigarren hezkuntzako ezinbesteko helburua da, eta ikastetxeetan irakasle, tutore eta orientatzaileen lanaren bidez antolatzen da, baina derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoan, era askotako arrazoirengatik, hurrengo etapetan egiten den orientazio akademikoa ez da beti orientazio-agenteei nahi luketen bezalakoa. Espainiako unibertsitateek, bestalde, bigarren mailako papera bete dute orientatzaile lan horretan eta, hainbat kasutan, unibertsitateek ez dute eskaintako titulazioei buruzko informazioa baino ematen.

Argentinan, Txilen, Mexikon eta Espainian egindako ECUALE proiektuan (Kalitateari buruzko Ikerlanak Latinoamerikako eta Espainiako Unibertsitateetan), eta 51 faktoreen artean, aukeratutako «ikasketarako ikaslearen bokazioa», eta «ikasteari buruz ikasleak duen jarrera» irakaskuntza unibertsitarioaren emaitzetan eraginik handien duten 10 faktoreen artean sartu dituzte lau herrietako irakasleek (Cardona, Barrenetxea, Mijangos eta Olaskoaga, 2009). Horrek adierazten du unibertsitateen irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko funtsezko bi faktore horiek unibertsitatara sartu baino lehen egindako orientazioarekin erabat erlazionatuta daudela.

2. HELBURUAK

Artikulu honen oinarria ikerketa lanaren helburu nagusia izan da, hau da, Espainiako unibertsitateen informazio politikak hobetzea. Hain zuzen, horrek unibertsitate-sistemaren efizientzian izango duen eragina nabarmentzen dadin, eta unibertsitate-sistema eta horren aurreko hezkuntza-sistemaren artean dagoen lubakia estaltzen laguntzeko asmoz.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko (DBHO) eta goi mailako ikasketen arteko jarraitasun ezak denbora galtze itzela sortarazten dio hainbat ikasle eta orientazio-agenteri. Baina unibertsitateek bere informazioarako bide eta edukiak hobetu ahal izateko, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan dagoen orientazio zerbitzuaren egitura ezagutu behar dute, bai eta zein informazio mota jotzen duten garrantzitsutzat ikastetxeetako orientatzaile eta tutoreek; horretaz gain, baita zer nolako eskakizunak jasotzen dituzten ikasle eta familien eskutik.

Halaber, unibertsitateek jakin behar dute zer nolako garrantzia ematen dioten orientazio-agenteei eta, oro har, nola baloratzen duten unibertsitateetatik jasotako informazioaren kalitatea. Datu horietan oinarrituz, unibertsitate bakoitzak aztertu beharko luke bigarren hezkuntzako ikastetxeek garrantzitsutzat sailkatzen dituzten gai buruz nolako informazioa ematen duten.

Zehatz-mehatz, artikulu honen helburua unibertsitateek informatzeko egiten dituzten politikari buruzko unibertsitate-aurreko ikastetxeetan batutako iritziak jakinaraztea da. Unibertsitateetatik honako gai buruzko informazioaren egokitasuna eta zehaztasuna baloratzea eskatu zaie ikastetxeetako orientatzaile eta ikasketak buruei: titulazioak, ikasleen harrera,

irakatsi eta ikasteko prozesua, zerbitzu pertsonalak eta asistentzialak, lanbideratzen laguntzeko zerbitzuak, eta ikasleek lortutako emaitzak. Horretaz aparte, orientazio akademikoa egiteko ikastetxeetako egituraz, ikasle eta familiek eskatzen duten informazioaz, eta unibertsitateetatik jasotzen dutenetik zein nolako informazio mota nabaritzen den faltan galdetu diegu.

3. METODOLOGIA

Artikulu honen helburua lortzeko erabili dugun informazioa unibertsitate aurreko ikastetxeetatik eskuratu dugu zuzenean. Landa-lanean, bi tresna osagarri erabili ditugu: ikastetxeetako orientazio-agenteei bidalitako galdesorta eta pertsonalki egindako elkarrizketak.

Gogora ekarri behar dugu DBHOko ikastetxeak unibertsitateen politika informatiboen jasotzaile garrantzitsuenak direla, eta, gainera, informazio hori lehengaitzat erabiltzen dutela orientazio akademikoa egiteko. Beraz, informazioaren erabiltzaile-paperak eta bere ikasleenganako hurbiltasunak unibertsitateen politika horien eraginkortasuna ebaluatzeko aditu bihurtzen ditu.

Galdesortaren diseinuan hiru baliabide hartu dira kontuan: lehenengoa, ikerketa taldearen kideen esperientzia goi mailako hezkuntzaren kalitatearen ikerketetan eta hobekuntza prozesuetan; bigarrena, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia Nazionalak (ANECA), titulazioak egiaztatzeko eta ziurtatzeko jarritako orientazioari buruzko baldintzak, eta azkenik, bigarren hezkuntza parte hartzen duten taldeen ordezkarien (ikasleak, orientatzaileak, ikasketa buruak, tutoreak, familiak,...) iritziak, eztabaida talde baten bidez lortuak.

Galdesorta eranskinetan dago, hiru ataletan banatuta: lehenengo 6 galderek galdesortaren aurreneko atala osatzen dute 30 item bilduz, bakoitzaren garrantzia eta gaur egun jasotzen den informazioaren kalitatea baloratzeko; atal horretan «oso txikia» eta «oso handia» aukeren arteko eskala batean baloratzeko eskatzen zaie. Bigarren atalean lau galdera agertzen dira, unibertsitateek informazioa bidaltzeko erabiltzen dituzten bideei, eta bide horien eraginkortasunari buruz; hezkuntza-sistema bien arteko koordinazio maila baloratzeko ere eskatzen zaie. Hirugarren atalean, azkenik, identifikaziorako aldagaiak agertzen dira.

Galdesorta 2008ko azaroa eta 2009ko maiatzaren artean pasatu zen interneten bidez. Helburuko populazioa Espainiako batxilergoko edo batxilergo eta lanbide-heziketako ikastetxeek eta goi mailako lanbide-heziketakoek osatu dute. Lagina aukeratzekoan hiru geruza hauek hartu ziren kontuan: ikastetxeen titulartasuna (publiko eta ez publiko, itunak barne), hezkuntza mota (batxilergo, batxilergo gehi lanbide-heziketa eta goi mailako lanbide-heziketa) eta autonomia erkidegoa. Laginaren tamaina finkatu ondoren, ausazko laginketa bakuna aplikatu zen erkidego bakoitzean.

876 ikastetxeetakoa lagina erabili da, eta 275 erantzun jaso ditugu; horrek % 5,75eko gehieneko errorea du, eta konfiantza maila % 95ekoa izanik.

Erabili dugun bigarren tresna elkarrizketa izan da, lehenengoaren osagarritzat hartuta; ikastetxeetako giroa, orientazio akademikoari benetan eskainitako baliabideak ezagutzeko, eta informazio kualitatiboa lortzeko erabili dugu. Nahiz eta gure ustean metodorik aproposena ikastetxeak bisitatzea den, denbora eta giza baliabide murrizkak izan ditugunez, elkarrizketa batzuk telefonoz egin behar izan ditugu. Guztira 142 elkarrizketa egin ditugu, hamazazpi autonomi erkidegotan, eta horietatik 82 ikastetxeak bisitatu egin dira. Elkarrizketa horiei egitura emateko 10 galderako galdesorta diseinatu zen: 8 galderetan orientazio-antolakuntzaz eta orientazio-ekintzez galdetzen zitzairen, eta gainerakoetan unibertsitate-sistemari eta unibertsitate eta beste hezkuntza-sistemen arteko koordinazioari buruz.

4. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKOTIK UNIBERTSITATERA PASATZEKO INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA

Atal honetan bigarren hezkuntzako ikastetxeek orientazio akademikorako duten egitura, eta ikasle eta familientzat zer nolako ekintzak egiten dituzten aurkezten da. Horretaz gain, unibertsitatetik jasotzen duten informazioaren kalitateari eta egokitasunari buruzko ikastetxeetako orientazio-agenteen iritzia batzen da.

4.1. Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokotik unibertsitatera pasatzea errazteko orientazio-egitura eta moduak

Egindako 142 elkarrizketa aztertu ondoren, unibertsitatera joateko atakaren aurrean ikasleak nork orientatzen dituen galdetu zaienean, elkarrizketatuen % 84k (publikoen % 88k eta pribatuen % 73k), lan hori orientatzaileen eskuetan dagoela esan dute, agente zuzena (ikastetxeen % 7), edo lan orientatzaileen dinamizatzailea.

Ikastetxeetako orientazio-egitura desberdina dela atera genezake ondorio, baina talde lana da gehienetan; dena dela, DBHOn erresponzabilitaterik handiena duen agentea tutorea da. Batxilergoko koordinatzaileak, koordinatzaile pedagogikoak, ikasketa buruak, orientatzaileak eta espezializaziozko irakasleak dira orientazio lanetan parte hartzen duten beste agente batzuk.

Ikasleei bideratutako orientazio egiturarekin gustura dauden galdetuta, gehienek baietz esan dute; hala eta guztiz ere, giza baliabide gehiago, tutoretza ordutegian birsartzea eta tutoreek ordutegitik kanpo orientaziorako egindako lanari nolabaiteko errekonozimendua onartzea eskatzen dute.

Bestalde, ikasleak aparte, ezin dugu ahaztu familiek ere askotan informazioa eta orientazioa behar dutela beren seme-alaben orientazio-agente bihurtzeko. Ikastetxeetan, familiekin orientazio-lana egiterakoan, presentzia urriagoa dute orientazio sailek, eta protagonismo handiagoa tutoreek. Dena den, hori guztia bi faktoreren menpe dago: ikastetxeko orientazio-egitura eta -politika. Hezkuntza maila honetako ikastetxe batzuetan orientazioa ikasleei bakarrik eskaintzen zaie —batez ere ikasleen autonomia garatzeko asmoz—, baina beste batzuetan familiei ere bai.

Familientzako orientazioa egiten duten ikastetxeen portzentaia elkarrizketatuen % 68koa izan da, eta gehienetan aurrea hartzen duena ikastetxea bera da; gutxi batzuetan inizatiba guraso-elkarteena da. Dena den, kexu bera dute DBHko ikastetxe guztietan, alegia, antolatzen dituzten ekintzetara guraso gutxi joaten dela. Ikastetxearen titulartasunaren arabera, familientzako ekintzak antolatzen dituzte ikastetxe ez publikoen % 81ean, eta ikastetxe publikoen % 64ean.

Orientazio akademikoa nola eta noiz hasten den unibertsitatera begira galdetu ondoren, esan genezake ikastetxe gehienetan derrigorrezko bigarren hezkuntzako (DBHko) laugarren mailan hasten dela, hau da, ikasleak batxilergo mota jakin bat edo heziketa zikloa aukeratu behar duenean. Gutxi dira DBHko hirugarren mailan hasten diren ikastetxeak; agian, etorkizunean selektibitate-azterketaren aldaketekin, agian, komenigarria litzateke orientazioa DBHko laugarren mailako hautazko ikasgaiak aukeratu aurretik egiten hastea. Dena den, unibertsitateko titulazioei buruzko informazioa argitzeko jarduera gehienak batxilergoan antolatzen dira, eta mota askotakoak aurkitu ditugu: prestakuntza-ibilbideei buruzko hizketaldiak; ikasleen interesak jakin ondoren, hizketaldiak interesa duten arloetako profesionalekin edo materialak prestatzea, ikasleek titulazioen irteera profesionalak, edukiak eta sarrera-profila zeintzuk diren argiago izan dezaten.

Elkarrizketetan egiaztatu ahal izan dugunez, ikastetxe gehienetan DBHOn ikasleekin egindako orientazio lana etorkizunerako aukera akademikoen informazioa emate hutsa dela; oso ikastetxe gutxitan egiten dute ikasleari erabaki-hartze prozesuan laguntzeko eta prestatzeko orientazioa, bere gaitasunak, inguruabarrak eta jarrerak kontuan hartuta. Dena den, orientaziorako profesionalak uste dute oro har, ez ikasleak, ezta gurasoak ere, ez direla jabetzen unibertsitatera sartzeak ekartzen duen aldaketaz.

Elkarrizketatuek aitortzen dute informazio asko jasotzen dutela unibertsitateetatik, baina bakarrik elkarrizketatuen % 28k dio informazio hori ona dela; beste guztiek desegituratua dagoela eta, ondorioz, beharrezkoa den informaziora heltzea zaila dela, eskaintzen dutena ez dela erreala, edo ez dela erabilgarria esaten dute. Hainbat proposamen ere bildu ditugu unibertsitateek eskaintzen duten informazioaren antolaketa hobetzeko. Gehien jaso dugun eskakizuna, unibertsitate guztietako informazioa bildu, ordenatu eta batera eskaintzearena da, ahal den neurrian moldenmoldeen estandarizatu baten

arabera; eta hori hezkuntza sailek, Espainiako unibertsitate-errektoreen batzordeak (CRUE) edo ministerioek egin dezaketela eranstean dute.

Azkenik, bigarren hezkuntzaren eta unibertsitatearen arteko koordinazioa nola ikusten duten galdetu diegunean, ikastetxeen % 14k aitortu du ez dagoela koordinaziorik sistema bien artean. Horri gehitu behar zaio koordinazioa ekintza konkretu batzuetan bakarrik dagoela esaten duen % 21a, adibidez, Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura egokitzeko martxan jarri dituzten programei buruzko informazioa ematerakoan, eta selektibitatean. Azken horretan, autonomi erkidego batzuetan nahiko kexa dago, arlo desberdinetako koordinatzaileak soilik informazioa jakinaraztera joaten direlako ikastetxeetara eta, ikastetxeetatik eginiko iradokizunak kontuan hartu barik.

Ikastetxeetatik koordinazio handiagoa eskatzen dute hainbat gaitan: irakasgaien edukietan, unibertsitatean arrakasta izateko ikasleek lortu behar lituzketen gaitasunetan, unibertsitatean ikasleei eskatzen zaien sarrera-profila finkatzerakoan, eta jarrera eta beste hainbat gai akademikotan.

DBHoko arduradunen ustez, unibertsitatea bigarren hezkuntzako ikastetxeetara gehiago hurbilduko balitz orientazioa hobetu egingo litzateke; hau da, komenigarritzat hartzen dute unibertsitateak berak aurrea hartzea koordinazioa bultzatzeko. Elkarriketatuen laurdenak koordinazio-maila askoz handiagoa eskatzen du, hezkuntza-sistema guztiarentzat orientazio-egitura bakarra proposatuz.

Bukatzeko, heziketa zikloetako ikastetxeetan kexa ugari bildu ditugu, unibertsitateek baztertuta omen dituztela eta, bere ikasleentzat ere batxilergokoei ematen zaien tratua eskatzen dute.

4.2. Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokotik unibertsitatera pasatzean premiazko informazioa eta bere kalitatea

275 galdesorta aztertu eta gero, ikastetxeek informazio-dukien ordenazioa definitzen dutela ondorioztatu dugu zalantzarik gabe. Beraz, ordenazio horrek orientazio-agenteei euren lanaren kalitatea handitzen lagun diezaieke, eta, horren ondorioz, ikasleari erabakiak hartzerakoan ere bai.

4.2.1. Premiazko informazioa kalitate oneko orientazioa garatzeko


1. grafikoan agertzen dira orientazio-agenteen ikuspuntutik edozein ikaslek aukera egokiak erabakitzeko behar dituen hamar eduki nagusiak; grafiko horretan, «handia» eta «oso handia» erantzunen maiztasun erlatiboak kontuan hartuz, eta sortutako behin betiko ordenazioan, lehenengo postuetan titulazioen eskaintzari buruzko edukiak kokatzen dira. Jarraian, ikasketak amaitzean lan-munduan txertatzeari eta horren ondorengo irtenbide profesionalei buruzko informazioa. Ikastetxeen aldetik, bai «ira-

katsi eta ikasteko prozesuak» bai «ikasle-harrera» kategoriek antzeko balorazioa jasotzen dute oro har. Dena den, bi kategoria horietan unibertsitateek atzerrian ikasteko edo enpresatan praktikak egiteko eskaintako aukerak nabarmentzen zaizkie gainerako informazio-educie. Gainerako kategorietatik «pertsonala eta laguntzako zerbitzuak» daude, azpi-azpitik, garrantzi «handia» edo «oso handia» gutxiengo ikastetxeak esleitzen baitie.

Emaitzen lehenengo irakurketa eginez, ondoriozta liteke ikasleei nahitaezkoa zaiela: erabakiak hartzen laguntzeko titulazioetan sartzeko baldintzei (ikasturteetako gutxieneko nota, eskaintako plazen kopurua) eta titulu-eskaintzari dagokien informazioa.

Irakaskuntza-metodologiari buruz, gai jakin batzuk irakaskuntza-metodologia bera baino baloratuagoak izan direla erakusten da ikerketan: bai atzerrian egiteko aukera edo kanpoko praktikak, bai lan-merkatuan sartzeko baliabideak.

1. grafikoa
Bigarren hezkuntzako ikastetxeetatik informazio-educien garrantziari buruzko pertzepzioa.
Gehien baloratu dituzten hamar edukiak



Iturria: POPE proiektua.

1. taula

Bigarren hezkuntzako ikasketxeetatik informazio-edukien garrantziari buruzko pertzepzioa

Informazio-itena eta kategoria	«Handia» eta «oso handia»-erantzunen maiztasun erlatiboak	Batez bestekoa*	Hautemandako garrantzi-rankinga**
TITULAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA			
Titulazioen eskaintza (espezialitateak, ikasketeta-planak, programak,...)	% 84	4,2	2
Eskaintzako plazen kopurua, aurreko ikasturteetako gutxieneko nota, sartzeko baldintzak,...	% 85	4,3	1
Eskola-orduak	% 20	2,7	28
Aholkatzen den aurreko prestakuntza (batxilergo-modalitate gomendatua, hainbat gai menderatzea,...)	% 77	4,0	3
Zertarako gaitzen duen titulazioak	% 76	4,0	4
Beken, garraioen eta ostatuen gaineko informazioa	% 60	3,6	10
Titulazioei buruzko informazioari dagokion itemen batez besteko balorazioa	% 67	3,8	
IKASLEEN HARRERARI BURUZKO INFORMAZIOA			
Harrera-jardunaldiak lehen mailako ikasleentzat	% 47	3,4	18
Laguntza-programak lehen mailako ikasleentzat	% 46	3,3	20
Unibertsitateko ikastegietan prestakuntzarako jarduera diseinuz eta ikasteko moduez aholkuak ematen dituen orientatzailea	% 48	3,3	17
Ikasle-tutorearen programa unibertsitatertzean laguntzeko	% 44	3,2	23
Unibertsitate orientaziorako zerbitzua	% 59	3,5	12
Ikasleen harrerari buruzko informazioari dagokion itemen batez besteko balorazioa	% 49	3,3	

Informazio-itena eta kategoria	«Handia» eta «oso handia»-erantzumen maiztasun erlatiboak	Batez bestekoa*	Hautemandako garrantzi-rankina**
IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA			
Maitlaka eta irakasgaika lortu behar diren gaitasunak	% 44	3,2	22
Irakatsi eta ikasteko erabilitako metodoa, taldeen tamaina eta ebaluazio-sistemak	% 48	3,3	16
Ikaslearen ikasteko prozesuaren jarraipena	% 45	3,2	21
Guene eta instalazio komunak: laborategiak, tailerrak, bibliotekak eta ikasteko gelak	% 48	3,4	14
Multimedia azpiegitura ikasgeletan	% 41	3,3	24
Ikasleek erabiltzeko informatika-gelak	% 48	3,3	15
Kanpo-praktikak	% 63	3,6	7
Aizerriko unibertsitateetan, ikasketak egiteko aukera	% 62	3,6	8
Irakatsi eta ikasteko prozesuari buruzko informazioari dagokion itemen batez besteko balioa	% 50	3,4	
ZERBITZU PERTSONAL ETA ASISTENTZIALEEI BURUZKO INFORMAZIOA			
Kirol, kultur, aisiarako eta kultur sustapenerako baliabideak	% 28	3,0	26
Ikasleen elkarteak	% 14	2,6	29
Ikasle ohien elkarteak	% 6	2,1	30
Psikopedagogia-kabinetea	% 24	2,7	27
Zerbitzu pertsonal eta asistentzialeari buruzko informazioari dagokion itemen batez besteko balioa	% 18	2,6	

Informazio-itena eta kategoria	«Handia» eta «oso handia»-erantzunen maiztasun erlatiboak	Batez bestekoa*	Hautemandako garrantzi-rankinga**
LANBIDERATZEARI LAGUNTZEKO ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIOA			
Lan-poltsa	% 71	3,8	5
Lanbideratze-orientazioa	% 66	3,7	6
Lanbideratzearen jarraipena (lanpostu motak, enpresa motak, soldatak, kokapen geografikoa,...)	% 51	3,4	13
Lan-bideratzeari laguntzeko zerbitzuei buruzko informazioari dagokion itemen batez besteko balioa	% 63	3,6	
EMAITZEI BURUZKO INFORMAZIOA			
Eskola porrota lehen urtean	% 46	3,3	19
Eskola-uztea, graduatzea, ikasketak ezarritako denboran bukatzen duen ikasle kopurua,...	% 37	3,1	25
Lan merkatuan sartzeko emandako denbora	% 61	3,6	9
Lan postua ikasitakoari egokitzea	% 60	3,5	11
Emaitzei buruzko informazioari dagokion itemen batez besteko balioa	% 51	3,4	

* Erantzunen batez bestekoa, modu kuantitatibo bihurtu direnengan («oso txikia» =1; «txikia» =2, ea.).

** «Handia» eta «oso handia» erantzunen maiztasun erlatiboak ordenatuta.

Iturria: POPE proiektua.

Ikastetxeen erdiak, gutxi gora behera, «handia» eta «oso handia» balorazioa eman diete ikasle-harrerari buruzko informazio-epigrafea definitzen duten informazio-eduki guztiei (ikusi 1. taula), puntuaziorik handiena «Unibertsitate orientaziorako zerbitzua» itemari dagokiolarik. Beraz, aurreko paragrafoan orientazio-lanaren koordinazioaren hobekuntza aipatu dugunean, esandakoa baieztatzen da; hau da, hobekuntzarako orientazio-agente gehienek hezkuntza-sistemaren maila guztietan zerbitzuen koordinazioa beharrezkoa dela uste dute.


Taula berean islatuta, ikastetxeek gutxien baloratu duten atala pertsonal eta laguntzako zerbitzuei buruzkoa da, batez besteko puntuazioa % 18koa izan da.

4.2.2. Jasotako informazioaren kalitatea

2. grafikoan jasotako informazioa kontuan hartuta, kalitateari buruz puntuaziorik handiena lortu duten hamar edukiak zehazten dira. Izan ere, puntuazio handiena jaso duena «titulazio-eskaintza» izan da, baina hala ere, ikastetxe guztien erdiak baino ez dio «handia» edo «oso handia» balorazioa eman. Beraz, ondoriozta daiteke kalitateari buruzko iritzia ez dela oso ona.


Aurkako muturrean, 3 grafikoan, informazio-kalitateari buruzko itemei «urria» edo «oso urria» dagozkien edukiak islatzen dira. Grafiko hori behatuz gero, ikasketa-emaitzei edo ikasleari unibertsitatean arrakasta lortzeko laguntzen dioten baliabideei buruzko gaiak topatuko ditugu.

2. grafikoa
Bigarren hezkuntzako ikastetxeetatik informazio-dukien kalitateari buruzko pertzepzioa. Gehien baloratu dituzten hamar edukiak



Iturria: POPE proiektua

3. grafikoa
Bigarren hezkuntzako ikastetxeetatik informazio-edukien kalitateari buruzko pertzepzioa. Gutxien baloratu dituzten hamar edukiak



Iturria: POPE proiektua.

Oso kritikoa da baita ikastetxeen ebaluazioa unibertsitateetako irakatsi eta ikasteko metodoez, eta pertsonal eta laguntza-zerbitzuen kopuruaz. Hala ere, gogoratu behar dugu ikastetxeen aburuz informazio hori ez dela oso garrantzitsua; beraz ikastetxeek jasotako informazioa kalitate urrikoa izatea ez litzateke hain larria izango.

3. grafikoa jasotzen denez, eskola-uzteari, lehen urteko eskola-porrotari edo ikasteko prozesuaren jarraipenari buruzko informazioaren gabezia ere azpimarratu behar da; horiek guztiak ikasleari unibertsitatean lagun diezaioketen ekintzak direla azpimarratu behar da. Horretaz gain, orientatzaileen iritziz ekintza horiek oso lagungarriak liratekeela baieztatu da elkarriketetan.

Orientazio-agenteen iritziz, erabaki egokia hartzeko informazio-eduki nagusiak zeintzuk diren eta euren kalitatea nolakoa den aipatu eta gero, 4. grafikoa azaltzen den informazioa aztertzea interesgarria gerta daiteke. Garrantziaren ikuspuntuari kalitateari baino puntuazio handiagoa ematen zaio informazio-eduki guztietan (grafikoa diagonaletik azpitik kokatuko litzateke). Hau da, ikastetxeek edozein informazio motatan garrantziari kalitateari baino puntuazio altuagoa ematen diote kasu guztietan; beraz, hortik orientazio-lan zuzena garatzeko informazio-gabezia erator daiteke.


Dena dela, garrantziaren arabera baloraziorik handiena jaso duten edukiak (5. grafikoa) arretaz behatzen baditugu, ondorioa are eta ezkorragoa gertatuko da. Esaterako, garrantziaren arabera (batxilergo-modalitate gomendatua, hainbat gai menderatzea,...) aholkatzen den aurreko

prestakuntzari dagokion «handia» eta «oso handia» erantzunen maiztasun erlatiboa % 78 izan da; kalitatearen arabera % 26koa izan denez, 52 puntuko aldea ateratzen da. Grafiko berean garrantziaren eta kalitatearen arteko distantziarik handiena lan-poltsari buruzko edukian dago, 59 puntukoa, gai hori lan-merkatuari zein ikaslearen etorkizunari guztiz lotuta egongo bailitzateke.

Horretaz gain, unibertsitateek berariazko edukiei buruz (sartzeko baldintzak, titulazioen eskaintza) ahalegin bereziak egin arren, bigarren hezkuntzako ikastetxeetara informazioa ez da erraz iristen eta horien arteko aldeak adierazgarriak dira.


4. grafikoa

Informazio-edukiei emandako garrantzia vs. sumatutako informazio-kalitatea



Iturria: POPE proiektua.

5. grafikoa
Informazio-edukiei emandako garrantzia versus sumatutako informazio-kalitatea




Iurria: POPE proiektua.

4.3. Bigarren hezkuntzako ikastetxeek erabiltzen dituzten eta nahiago dituzten informazio-kanalak

Informazio-politikan, informazioa jakinarazteko erabiltzen diren bideak informazio bera bezain beharrezkoak gerta daitezke. Hori dela eta, bigarren hezkuntzako ikastetxeentzako galdesortan bi galdera prestatu ziren propio horretaz bereziki. Bietatik batean, ikastetxeei informazioa nagusiki zein kanalaren bidez jasotzen duten galdetu zaie; eta bestean, haien ustez egokiena zein litzatekeen. 6. grafikoak galdera horien erantzunak islatzen ditu.

6. grafikoa
Bigarren hezkuntzako ikastetxeek erabiltako informazio-kanalak eta nahiago dituztenak



Iturria: POPE proiektua

Grafiko horretan agertzen diren datuen arabera «posta» kanala da ikastetxeen % 29k gutxien nahi duena eta gehien erabiltzen dutena (% 74). Baina kontuan hartu behar dugu unibertsitateek ikastetxeen eskura jartzen dituzten kanalak ikastetxeak erabiltzera behartuta daudela; hau da, batez ere unibertsitateek definitzen dute kanalen erabilera. Egoera horretan, «unibertsitateari egindako bisita» eta «unibertsitate-web» kanalak ere badaude. Beste hiruak («orientaziorako jardunaldiak», «unibertsitateak ikastetxeei egindako bisita» eta «posta elektronikoa») informazio-bideen guztiz kontrako joera da, ikastetxeek erabiliko lukete baina gaur egun ez dute aukerarik. Agian, horren arrazoi izan daiteke azken kanal horiek unibertsitateek martxan jartzeko baliabide gehiago behar izatea.

5. ONDORIOAK

Atal honetan, era laburrean, batetik bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileen unibertsitateari buruzko iritzia islatzen saiatuko gara, eta horretaz gain, baita euren orientazio-lanaren egitura eta antolamendua nolakoa den; bestalde, POPE proiektuaren eremuan, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan orientazio-agenteei egindako inkestatik lortu diren ondorioak komentatuko ditugu.

Orientatzaileen iritziak

Unibertsitatearekiko harremanari dagokionez, iritziak oso desberdinak dira; baina ez autonomia erkidegoen edo probintzien arabera, baizik eta inguruko unibertsitate motaren arabera. Hau da, zenbat eta sortu berriagoa izan unibertsitatea, orduan eta hurbiltasun handiagoa sumatzen dute orientatzaileek unibertsitatearekiko.

Halaber, titulartasun publikoko ikastetxeetako orientatzaileak kritikoago eta berrikuntzari jarrera irekiagoko agertu dira.

Orientazioaren beharri dagokionez etapa honetako ikasleen arrakasta bermatzeko nahitaezkoa dela baieztatzen dute, oro har ikasleek erabaki zuzena hartzeko ez dutelako heldutasun nahikorik. Baina, egoera gehienetan, kalitatezko orientazioa bermatzeko baliabide pertsonal gehiago eskatzen dute orientazio-agenteei; ordutegiari dagokionez ere, eskola-orduak zehaztuta bereziki orientazioa garatzeko, hau da, tutoretza-ordua hain zuzen.

Orientazio-lanaren egiturak eta moduak

Ikastetxe pribatu eta publikoen artean hainbat alde dago. Lehenengotan, bada batxilergo koordinatzailearen figura, berari dagokio gehienetan orientazio-lana; berriz, publikoetan orientabide-departamentuek bultzatu ohi dute, Katalunian izan ezik.

Ikastetxeetan, ikasleentzat zuzentzen diren ekintzetan ez dago azpimarratzeko alderik. Aipatutakoa ez da familiekin gertatzen; familientzat zuzendutako ekintzetan alde handia dago ikastetxeen artean. Ikastetxe batzuetan, informazioa besterik ez da eskaintzen, eta beste gutxi batzuetan ikasleak eta familiak orientatzen saiatzen dira.

Unibertsitateetik jasotako informazioa

Ikastetxeek orientazio-lana informazio-transmisio gisa hartzen dutela ikusi dugu, ikasketa-eskaintzari zein ikasketetan sartzeko baldintzei buruzko informazio objektiboa da gehien arduratzen zaiena. Bi informazio-eduki horien garrantzia «handia» edo «oso handia» izaten da kasu gehiene-

tan. Ikastetxeen iritzietatik abiatuta sortutako sailkapenean lehenengo eta bigarren postuan agertzen dira, hurrenez hurren, eduki horiek.

Ikus dezagun titulazioen curriculum-diseinuari lotuago dauden beste kontu batzuk, esaterako: «irteera-profila» (zertarako gaitzen duten titulazioak) rankingaren 4. postuan dago; «sarrera-profila» delakoari buruz antzekoa esan daiteke, 3. postuan dago eta. Edo irakatsi-ikasteko prozesuari dagozkienak, hau da, unibertsitatearen antolamenduari eta pedagogia-berrikuntzari lotuago daudenak: hurrengo urteetan aurreikusten diren aldaketa nagusiek ez dute hezkuntzako ikastetxe gehienen iritzia lortu. Izan ere, 16. (irakatsi eta ikasteko erabilitako metodoak, taldeen tamaina eta ebaluazio-sistema) eta 22. (mailaka eta irakasgaika lortu behar diren gaitasunak) postuetan kokatzen dira.

Emaitzei buruzko informazioari erreparatzen badiogu, ikastetxeen titulartasunaren arabera alde zabala dagoela esan daiteke: aurreko paragrafoan aipatutako aspektuez kezka handiago adierazten dute ikastetxe pribatuek publikoek baino, horri buruzko galderetan eman duten puntuazioa altua izan da eta.

Informazioaren kalitatea

Unibertsitateei, gehiago arduratzen zaie titulazioak saltzea, kalitatezko orientazioa egiteko informazioa erabilgarria eskaintzea baino. Nabarmenagoa da hori unibertsitate pribatuetan.

Ikastetxeek informazio-dukiei emandako garrantzia sumatutako kalitatea baino handiagoa izan da beti; beraz, oro har ikastetxeak Espainiako unibertsitateen informazio-politikari buruz kontentagaitz egoten dira, informazio-atal guztietan.

Hala ere, ikastetxe publikoak pribatuak baino kritikagoak izan dira, eta ez dute informazioaren kalitatea horrenbestean baloratu, hogeita hamar informazio-dukietatik gutxienez zortzietan islatzen da.

Informazioaren bideak

Hona ikastetxeek askotan errepikatu duten eskaera: unibertsitateek sortutako informazioa erakunde independenteren batek bildu beharko luke, era estandarrean. Esaterako, Espainiako unibertsitate-errektoreen batzordearen, edo ministerioaren eginkizuna izango litzateke.

Informazio estandarizatuta egon badago, baina ikastetxeek ez dakite ondo non, edo ez dute erabiltzen, bigarren hezkuntzako ikasleentzat euren benetako beharretara ondo doitzen ez baita.

Bigarren hezkuntzako ikastetxeek lehentasunei eta erabilerari buruz emandako erantzunak aztertuz, deigarria izan daiteke Espainiako unibertsitateek kanal jakin batzuk gogokoenak izateagatik euren politikak diseinatzea; alabaina, ez dituzte ikastetxeen lehentasunak kontuan hartzen.

Baiezta ahal izan dugunez, ikastetxeek lehenesten dituzten bideak orientaziorako jardunaldiak eta ikastetxeei unibertsitateak egindako bisitak dira, baina ikastetxeek ez dute erabiltzen, unibertsitateak aurrea hartzen ez baitu.

